JORRALLA
4
Larunbata

Bilbao, 1936

# Euzkadi

AŘPIDE-SANEURIJA

| | | |
|---|---|---|
| Bilbao'kua ... ... ... | 9,00 | ifko. iru ilez |
| Bilbao'atazkua ... | 11,25 | » » |
| Idazki-itunmena ... | 62,00 | » urtez |
| Atzefijetakuak ... | 112,50 | » » |

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.263 zenbakija

# Idazleen lanaren ordaña

Ez ei-dago jakintza-gaietarako maitasunik geure artean; ezta irakurtzeko zaletasunik be. Eta ori, diñoenez, ez da jazoten Ebro'tik onuztik bakařik; baita aruzko aldetik be. Erderea dan lako jakintza-ele zabalduari ori jazoten ba' yako, zer esan geinke gure izkuntza baztertu onetzaz?

Oraintsu azaldu eban Baroja idazleak idazlan batean bere biotz-zirimola, au zala-ta. Erbesteko idazleen lanak eskutik eskura gelditu barik ibiltzen ei -dira. Aberastuta bizi ei-dira erbesteko idazlerik ospatsuenak. Bernard Shaw, Oppenhein, Lagerloff, Lugman, Papini... Onunzko alde oneitan, bařiz, urdaleko azkurea kentzeko beste ez dabe irabazten idazleak. Txirotasunean bizi dira emengo idazlerik geienak. Areik, idazki baři bat argitaratzen dabenean, miloeka saltzen dabez. Emen, baña, ogei mila saldu ezkero, pozaren pozaz zoratu beařean ikusiko doguz gure idazleak.

Idazleak baño txiroagoak eta eřukařiagoak dira, bařiz, izparkariak. Lurałde oneitako egunerokoak laři bizi dira bixirik irauteko beste diru ez dabe irabazten gaurko izpařingiak. Zertatik sortzen da egoera laři au? Eguneroko geiegi dagozalako ta, dagozan egunkari ořeik, beař ainbat irakurle ez daukezalako. Zelan ordaindu leikie, ba, eskuzabalka izparkarien eta idazleen jarduna?

Erbesteko gauzak aintzatzen doguz sařitan, eta, bein baño geiagotan, bide barik. Erbestearen gauzak geureak baño obeak diralakuan ibilten gara; angoak dagiezanak gureak baño egokiagoak dirala uste izaten dogu maiz. Oraingoan, ořatiño, erbestean jazoten dana aintzatzeko zergatia ba-dogula deritxot. Aztertu daigun arlo onetan Inglandeřia'n jazoten dana.

Zenbat eguneroko argitaratzen dirala uste dozue London'en? Amazortzi. Madrid'en bertan argitaratzen dira ořenbeste. London'ek bederatzi miloe biztanle daukaz gitxi gora bera; Madrid'ek, bařiz, miloe bat doi-doi.

Ludian dan izpařingirik aberatsena London'eko "Daily Herald" deitsoena da. Ařitu zaitez, irakurle. Bi miloe ieki zabaltzen dauz egunero izpařingi edeř onek. Laboristena da, gañera, egunkari au. Beraz, eskumaldeko alderdiak beti nagusi izaten diran lateři aren bařuan, laboristen izpařingi bat da aberatsena ta zabalduena. Ez al-da ařigařia jazokun auxe?

Orain amař urte, Doisteřia'n sozialistak nagusi ziran garaian, miloe bat alderdikide euki ařen, lateřiaren agintebideak euren eskuetan euki ařen, "Vorwaerts" eitson egunkariak ogeta amař mila ieki baño ez ebazan zabaltzen egunero. Alde bikaña, benetan, "Daily Herald" izpařingiak egunero saltzen dauzan bi miloetatik ořera.

Ořenbeste ieki egunero zabaltzen dauzan egunerokoak irabazpide aundiak euki beař naitaez. Ara oř zergaitik ordaindu leikiezan eskuzabal euren ogipekoen lanak. Ařigařiak dira Inglandeři'ko izpakaririk geienak irabazten dabezan alogerak. Izparkari-izena irabazteko, iru urte egin beař izaten dabez lenengoz ikasten eta galtzen. Bien bitartean, ez daitekez izparkari-batzan sartu. Baña, bein izen ori irabazi ezkero, Inglandeři'ko izparkarien saririk txikiena miila laurlekotik gorakoa da gitxi gorabera. Areago oraindiño, ango izparkaririk geienak irabazten dabezan alogerak bi miła laurleko ta erditik gora ibiltzen dira. Beraz, aitatu dogun sari ori edozein izparkarik irabazi leikeana da. Zer esan orain idazlerik autuenak eta gorengoenak eskuratzen dabezan alogeratzaz? Lateři-agintariak eurak be ez dabe idazlerik aipatuenak irabazten daben beste txindi jasotzen.

"Daily Herald" egunerokoan, Haven Zwaffer idazleak gizarteko arloetzaz idazten dau egunero. Bai al-dakizue zenbaterañokoa dan gizon onek bere lanaren ordañez artzen daun saria? Amař miła libra esterlina irabazten dauz urtean. Dirutza ori dana laurlekotara biutu ezkero, irureun eta iruregeta miła laurleko inguru dira. Ez da, gero, txantzetakoa sari auxe! Ez uste, ořatiño, au lako beste alogerarik Ingladeřia'n ez dagoanik. Beste idazle entzutetsu batzuk be beste ořenbeste diru jasotzen dabe euren lanagatik.

Aitatu dogun "Daily Herald" izpařingiak ezetzik, beste batzuk be oparo ordaintzen dabe izparkarien jarduna. "Times", "News Chronicle", "Evening Standard" eta beste zenbaitzuk bost miła libra ordaintzen dautsez urtean euren artezkariai. Ia beřeun miła laurleko dira.

Ordaindu ete-leikie beste ořenbeste emengo luřalde oneitan argitaratzen diran izpařingiak? Bai zera! España-aldean izparkarientzako alogerarik txikiena 350 laurleko dira ilean. Eta izparkaririk geienak, euren lanaren truke irabazten daben saria, ez da bosteun laurlekotik gora asko igongo. Beraz. Inglandařak eskuzabal saritzen dabe izparkarien lana; emen, baña, uři ta txiro. Zergatik ori? Geiagorik ezin leikielako. Naikua egiten dabe izpařingi askok bizirik irauteagaz. Eta ogipekoen lana orain ordaintzen daben baño aundiroago ordaintzen asi ezkero, pořot eginda geldituko litzakez geienak.

Orain arte esan doguzanak, jakintza-ele zabalduai begira erabili doguz. Irakurle ta erosle asko daukezan izpařingi aberatsai begira, alegia. Gure izkuntza baztertuan buruz ekin ezkero, zer esan bearko ete-geunk?

BAŘENSORO.

# Euzko-edestia

(Jarraipena)

**'CANOVAS"-EN ESAKUN OARGAŘI BAT**

España-k eřikari ospatsubak euzko -abeřtzaletasunatzaz nolaz oldozten zuan ageřtzeko edestuko degu gaur oraindik bizi dan eta Elořio'ko Txaunburuba dan Izuřategi'tař Jon aguřgařiyak "Cánovas" berari entzundako esakun oařgaři bat.

Izuřategi jauna, 1895'gařen uřtian, azkenengo "Bizkaitařa" argitaratu zan baño egun batzuk lentxubago, udaldiya igarotzen len aitatu degun Gipuzkua'ko "Santa Agueda" uritxuan aurkitzen zan; eta baita "Cánovas del Castillo" ere.

Egun batez bilbaotař eřiketari esagun batzuk, jauntxo talde batek ikeřtu zuan españar agintari-buruba.

Eta ¡jakiña! Bizkaya'ko eřiketa gora-beratzaz izketan ari-zirala atera zuten jatontzira "vizcaitarrismo"-a eta Arana-Goiri'tař Sabin bere "Bizkaitařa" izpařingi ausarditsubaren-bidez egiten ari zan euzko-abeřtzaletasun-zabalkunde izugařiya; eta bizkaitař jauntxo ikeřtari ayetako batek esan omen ziyon Sabin'tzaz "Cánovas"eri: "ORI, ZORO BAT; BURU ARIN BAT DA".

Eta "Cánovas,,'ek ikertari ayek danak ikaratuta utzi zituan erantzupen itzalgaři au eman omen zuan: "EZAZUTELA OŘELA USTE IZAN. ORI EZ DA ZORUA; OŘEK ASKO IKUSTEN DU, ETA UŘUTIRA..."

Bai "Cánovas,,'ek ere, uřutira ikusten zuan. Orduko aundizki batzuk ikusten etzuten bezela. ¡Euzkotař jauntxo zital-itxu ayek oařtzen etzuten gisara!

Baña etzan ori ain gauza ařigařiya orduban. Ařigařiyagua da gaurko egunetan ikustia oraindik ba'dirala "Cánovas del Castillo,,'k aldiz oařtu zuan egibide ori ezezten dabiltzanak; eta txařago dana: egi-argizpi ori ikusitzera iritxi nai ez-dutenak.

**SABIN'EN JAKINTZA LANAK**

Txalogařizko irakaspen ugariz ondo orniturik utzi zigun Irakasliak bere jakintza-lan bařutiya.

Sabin aundiyak bere "Bizkaya por su independencia" deritzayon idazti bikañagandik asita, izatez bukatu zan ařte, argitaratu zuan idatzi sakon-edeř ugari.

Bera jayotzaz erdelduna izanik, eta amasei urte zituaneraño bere abenda -ele edo izkuntza esagutzen etzuan ařen, andik aurera ogeitabi-urtegun zaneko, ederki asko ikasi ta euzkel-Irakasle gain-gañeko bat izatera iritxi zan. Gai oni-buruz egin zituan azken -gabeko lan gařantzitsubak berak onduen goralduko dute Irakaslia.

Sabin'ek, Irakasle biozdunak, maitarazi goriz berotu ta indařtu zuan euzkera, gure izkuntza txukun, garbi ta aberatza. Irakasle buru-argiyak bere adimen argizpi zoliyarekin argiztu ta apaindu zigun gure ele maitagařiya.

Arana eta Goiri'tař Sabin ostantzeko jakintza gayetan azkařa izan zala gařko jakintsu askuak iritzi batez aitortu izan ba'digute, euzkel-gayetan jakitunak diranak zabalkiro esagutzen dute euzkel-gayetan azkař-azkařa eta zuř-zuřa izan zala ere. ¡Amaika euzkerazko itz-beři-egoki bai - dabizkigu gařko euzkel-idazliak Sabin goragařiya'gandik ikasita!

Egiz esan dezakegu abandotař euzko-seme ospatsu onek, ezpairik gabe, egin izan zula bere bizitzako aldi labuř -arantzatsuban gař oraindik beste iñork egin izan duan baño geyago.

Arana eta Goiri'tař Sabin baño lenagotik ere ba'ziran euzkera ikasten, ořaztutzen eta gora-bidian jaři-nairik leyatsu sayatu izan ziran euzkeltzaliak; baña beren lanak etzuten igalirik ez lorarik ematen. ¿Zergatik ez?

Soro naiz baratza egiñalian landu ta atxuřtu ařen, azirik ereiten ezpada, alpeřikako lana izan oi-da; eta ořixe bera gertatu izan zan Sabin baño lenagoko euzkeltzale ayekin. Eta eguna jun eta eguna etoři, geroz berago zijuan orduko euzkeltzaletasuna.

Euzkera indařtzeko, "aziya" erein biař zan; eta azi ori abeřtzaletasuna izanik, Arana-Goiri'tař Sabin izan zan azi ori erain zuana eta bere igaliyak ařturik euzkera Euzkadi'rekin batean gaizka-bidien jaři zuana.

JELTZALE

# Gayak

**HORN'DAŘ JOSEBA**

Emen, Bilbao'n, ezeze, Euzkadi gustijan be ezaguna ta maře daben aldun abeřtzale au, orain egun batzuk zirala egin ixan eutsoen osatebakuntzea bide dala, osatubaz ei-dua.

Osatolatik urten da beñepein, eta bere etxera juan.

Ondiño be, baña, gustiz osatu orduko, aldi zati bat juango yako. Ikeřtaldi bat egiñaz zelan aurkitzen dan ikusi gura leuken adizkidiak, asko ei-dira. Ikeřtaldijok, baña, entzun dogunez, kal tegaři ixango ei-litzakijoz.

Gexuak ikeřtutia eřuki-egiñen edeř bat egitia da ixan. Gexodunari kalte egiteko danian, baña, ezta egin biař, kalte egitetik onik ezin lořtu leike-ta.

Euzko-Alderdi Jeltzalia'k autetsiriko aldun langile ta jakintsu oři bakotxak bere gurari ona ageřtu gura ixateko, baña, beste bide berezi bat asmau dabe: idazkikuak idatzita bidaldutia.

Atzerazkorik ixaten ezpa-dau, osuan be lasteř osatuko dala diñue-ta, txaidian be lasteř ikusi al-ixango dogu. Guk, bařiz, orixe gura: txaidian ikustia, bere arazuetan sařtuta abeři-aldez lanak-lan egiten ikustia.

Goikua'k jaditxiko al-dautsa, ba, lan -egiteko biařekua yakan osasuna. Gure naya orixe da, ta euzkotař gustijena be ori ixango dala uste dogu.

**ITXAŘTU GADIXAN**

Itxařtu gadixan, lo dagijanari tximitxak eta arkakuxuak be aginka egiten dautsoe-ta.

Auteskundiak yatořkuz, ba. Eta auteskundiakaz batera, aginka-egin-gurako tximitxa ta arkakuxo asko.

Euzkadi'ko urijetan, iguin emoten dauskuben tximitxarik geyen ixango doguzan urija, Bilbao ixango ete-dalakua dogu. Endore be, emen, zozolistua imiñi gura dauskube, ta Gomez abixenekua imiñi be.

Endoriaren jařai, bařiz, onen bařutijan alikatuta bixi diran beste zozolisto taldetxu batek Udaleratu gura leuke. Boltxebikijak be Udalera-bidian jařita dagoz, baña beste goři batzuk be.

Tamalgařirik tamalgařijena beste au da, baña: euzko-ekintzako abeřtzaliak dirala diñuen euzkotařak buztařpe ba ten buztařtuta juatia.

¿Auzokuakin; atzeřitařakin buztařtuta Euzkadi azkatuten? ¿Italiařakin lagunduta Abisinia aldeztuten?

Gauza batzuk, begijak zabaldu biařik barik ikusten dira. Ořetako bat emen esan doguna da: euzkotařak atzeřitařakin buztařtuta ibiltia, euzkotařon zorijona atzeřira eruateko indařak-indař egiten ibiltia dala.

Abeřtzaliak dirala-ta Euzkadi-aldez diñardubela diñuen Euzko-Ekintza edo diralako ořeik egin leikenik burubakokeririk aundijena, zozolisto-komunista ta abař'ekin buztařtuta benetako Euzko-Eři-gurarijaren auřka juatia da.

Baña, tira. Gixonak, gixona ixan biař ba-dau, yaokan azkatasuna biař dau. Eta azke dan gixonak, bere bařunbiak agintzen dautsan eran oldoztuteko eskubidia dau. Euzko-Ekintzako ořeik be, euren bařunbiak esaten dautsena ganeko egun baten ixango doguzan auteskundietara zozolisto-kmunista ta abař' kin buztařtuta juatia ba-da, euren bařunbiaren deyari erantzun baño eztabe egingo. Euzkadi azkatuteko bidiak eurak dabiltzanak dirala uste ba-dabe, jařatu dagijuela.

Benetakotzak agertu gura dauskuben uste ori, baña, ziñegotzi urten-gurearena baño ezpa'litz, eři-ezespena euren buruben ganera jausiko litzake, ta arin jausi be.

Atzoko izpařingijetan agertu ziran autařki-zenbakijak irakuři ixan dabezanak, Bilbao'ko endore ixateko eskubidia dauken endoregeyak nortzuk diran be ikusi dau.

Endoregeyok, onixek dira: Zabala'tař Perderika Euzko-Alderdi Jeltzale'ra alderdikidetuba, eta Gomez-Paulin zozolisto ezaguna.

Eskubide ori ixateko egin ixan dan auteskundian, Zabala'k baño Gomez'ek 1.165 autařki geyago ixan ebazan.

Auteskunde oneik ain zuzen be, "Pasko-mokotz"-sundia dakařzkube. Beřbizkunde-auřeko astiari, baña, "Aste Deuna" esaten yako.

Eta "Aste Deunak" beste auteskunde bat gomutazoten dausku: Josu-Kisto eři-gaizkaliaren, eta Bařabas eři-lapuřarena.

Josu-Kisto'k gaizkatu ta zorijondu gura ixan eban eskař txařeko eři arek, baña, Josu'rena edo Bařabas'en azkatasuna eskatu-egijala esan yakanian, Bařabas'ena eskatu eban, eta ao batez eskatu be. Eta ordez, Josu'ren erijotzea.

卐 卐 卐

Ene irakuřle, maře, uri-auteskundiak atietan doguz. Aste Deunian aurkitzen gara, Pasko-auřegunetan.

Beraz, Euzko-Eřijak be, erantzun -egin biařko dau, autařki-bidez erantzun be. ¿Zer erantzungo ate-dausku? ¿Bařabas azkatu, eta Josu erijotzara epařuteko? ¿Zabala'ri auřka egin, eta Gomez endore-aulkira jasoteko?

Aste Deunian aurkitzen gara, Berbizkunde auřeko egunetan.

Bilbao'ko urijak kistařa dala esan oi -dau. Itxaron ldagigun, itxaron, bakotxa zer garan Beřbizkunde egunak esango dausku-ta.

Uribiřařte'tař Ibon.

## Auteskundiak atzeratu?

Auteskunde oneik atzeratuko diralako otsak datořz. ¿Zegařija? Ministru eta osterantzekuak ixiłik dagoz; itzik eztabe egin-gura, baña dirudijanez Alcala Zamora Jaunari etxakoz begi-begiko.

Eskeř-aldeko gustijak bat-egindа dagozanian; España'ko uri geyenen jaun eta jaube marxistařak egingo diran orduban, Erkal-puřubak gauza askori begiratu biař dautse. Beraz, ezkintzakez ikeratuko auteskunde oneik atzeratuko ba'lira.

Euzkadi onetan eztauke gařantzirik; abeřtzaliak ezkara etxian geratuko. Baña España-aldeko eskumař "balientijak" bilduřez dagoz. Auteskunde oneik eztirala lagizkuak eta mustuř-okeř dagoz.

Gil Robles'en adimena ilundurik dago, oiz, igazi ziran auteskundietan emon eutsen makiladea dala-ta. Orduz gero eztau gauza onik egin. Itsu baten antzean ibili dabil. ¡Gixaxua! Irureun aldun aterako ebazalakuan bixi-zanak, piłotxu bat baño eztaukola dakus. Udal -auteskundiak! Eskumařak geyen diran tokijetan zintzo jokatu biař ei-dabe; ezkeřak nausi diran eřijetan, ostera, ziñegotzikairik, be, ez auřkeztu.

Autarkijak eta kalabazak, gustijak bařdiñak dira jaun ořeintzat. Eztauke zentzunik eta eurekořasunak janda dagoz. Bi-bijok egi ete-diran gara.

# Zortzitik-Zortzirat

AROA.—Eskualde hainitzetan ahal den bezalako aroa delarik, primadera ethoři zauku Eskual-Heřirat bere aro gocho eta maitagařiarekin. Denik ere, euri chorta baten behařa ginuke. Lapurdi eta Bachenabařen bederen. Bainan euria ere ethořiko da, Jainkoak maite baititu Eskualdunak!

PILOTA. — Hazparnen Gipuzkoařek galdu dute Duřuty eta Damestoy bi hazpandar famatuen kontra. Eta galdu... hemezortziaz beřogoita hamařetarat! Atanokařas joko edeřa egin du, menturaz lauetarik edeřena. Salegui etzen trempuan, pilotari etzion usaiako zartakoa ematen. Ařan behar da haatik igandean bezala ariz bi hazpandařak bertzerik ere yakuan sartuko dutela. Phazko biharamunean eginon baitute chapeigo huntan azken partida Ařayetařekin, ikusiko dozue! Alta, hazparnen dirua etzuten segurki alde: hogoi hamalaui ateratua zen gipuzkoařen alde...

HERIOTZE BAT.—Aste huntan hil da Mauleko auzapheza. Hainitz urte hautan heři hortako buruzagi zen, gořiek egiten zituzten bortz egin ahalen gatik. Ařas gure gizona zen eta Eskual -Heřiko oitura guzieri ořotik atchikia, pilota, dantza eta gainerateko. Mirikua baitzen bera, hiltzeko bezpera ařatsean eri baten ikusten izana zen oraino. G. B. Belduřa baginuke heriotze hořek ez duela ondorio onik ukhanen hoinbertze langile den Mauleko hirian...!

OSTIKOLARIAK.—Igandean hamabortz Miařiztařak Paris'en gintuen Frantziako armadaren [illegible] jokatzerat joanak: galdu dut[illegible] in Frantziako armadan Celhay eta Bergezu bi Eskualdunak egin dute lanik handiena eta ařan omen ditake hek garhaitu dituztela Miařiztařak. Guzien gatik, gora eta gora beraz Eskualdunak!

INTZEGARAY.—Aro edeřarekin bideetan abiatu dira chiřindulariak. Intcegaray Bazkoitařa bortzgařen heldu da "Criterium National" delako ibilketan. Nola aintzinda baititu Antonin Magne, Charles Pelissier, Louviot, Archambaud eta bertze eunbat chiřindulari famatu, aitortuko duzue Intzegarayek ez duela Eskualdunen omen Parisen ttipitu. Emak hor, muthil...!

AŘAINTZA.—Aste huntan chardina frango ekaři daukute gure ařaintzaleak, bereziki asteazkenean, bainan chardinak ttiki aire bat bazuen. Dena ere on haatik! Bethi balute holakoa ere!

HAZPARNEN. — Helduden astelehenean abereen agerketak dituzte Hazparnen, edeřenen sariztatzeko. Hemen gaindi ez da phesta handiagorik Eskualdun laborarientzat. Oro Hazparnen izanen dire astelehenean.

AZKEN BEŘI.—Egia zen Yainkoak maite dituela Eskualdunak eta euria igořiko zaukula. Gařapataka ari du, guk leřo hauk moldatzean. Ez giñuen uste haatik hoin laster ethořiko zaukula. Ongi ethoři dela!

Haur Prodigoa.

# rakurri EUZKADI

# Euzkotar Umientza

## Atetxo (1) itxusia

**Arritoki**

Soroak oso edeřak zeuden. Udarak agintzen zuan eta piło aundietan [illegible] den galburu oriak alde batetik eta garagar orlegiak eta belař legořak be[illegible] tik usai gozoz betetzen zuten aizea.

Zigueña anka luzeak alde batetik bestera zebiltzan, Egipto'ko elian itz[illegible] ñaz, izketa au auřekoai ikasita oso ederki itz egiten dute ta. Zelai ta so[illegible] baño aruntzago baso aundiak zeuden, eta eguzkiaren uře-izpiak, diz-diz [illegible] giten uraren gañean.

Leku edeř onen erdi-erdian aintziñako gaztelu zař bat zegoan, urez [illegible] ratua, eta bere orma zařak ikusi ere ez ziran egiten untz ořiz zaro est[illegible] zeudelako.

Eta orma zař aietako zirikate batean ate eme batek bere abia zeukan [illegible] txitak ateratzen ari zan, baña egun askotxotako lana baita atekumeak [illegible] ratzea! aspertu zamartuta zegoan, aspalditxoan auzoetako lagunen beřirik [illegible] ez zuan da.

Ořegaitik ere, noiz-edo-noiz ařautza bat ireki zan, "pip, pip" entzun [illegible] eta atekume batek bere burutxoa luzatu zuan. Biaramonean beste atekume[illegible] bat jaio zan, uřengo egunean beste bat, eta beriala ikasi zuten iñork erak[illegible] gabe "rap, rap" esaten, baita ere abitik kanporantz burua luzatuta beg[illegible] tzen.

—Mundua dan aundia!—esan zuten, ařautza azalen bařuan baño lasai[illegible] bizi zirala igeři zutenean.

—Uste aldezute—esan zioten amak, mundua gure abia dagoan gaz[illegible] zař au dala? Okeř zaudete, ene maitetxoak, mundua ori baño aundixoag[illegible] degu, mundua, an uřutian ikusten dan eleiza artan amaitzen da. Baña, la [illegible] ok ařautzatik erten ete dezuten ikusi beař det—esan zuan astiro-astiro ařo[illegible] tzen gañetik jaikiaz—. Ez ba, ařautzik aundiena oraindik osorik dago. Neb[illegible] tu naiz ba onenbeste denboran ařautzen gañean etzanda egoten.

Eta gogo aundi gabetanik baña atzera ařautza aundiaren gañean etzan [illegible]

Onetan etoři zitzaion antzař zař bat bera ikustera eta —nola zaude?— [illegible] detu zion.

—Ondo-ondo ez—erantzun zion—ireki nai ez duan ařautza temati bat [illegible] kat azpian da. Baña ikusi itzatzu ia, jaiotakoak zein edeřak diran.

—Erakutzi egidazu ia oraindik puskatu ez dan ařautza ori—esan [illegible] antzař zařak.

Atea zutindu zan eta antzařak ařautza ondo ikusi zuanean esan zion:

—Au ez dezu atien ařautza, pabuena baizik. Neuri ere bein ziri edeřa [illegible] ziraten, eta pabuen ařautzakin ezaři ninduen. Ez ziran berialakoan jaio, [illegible] noiz-edo-noiz ařautzatik erten zutenean, nork eraman ayek uretara! Ay[illegible] urari zioten bilduřa ta gořotoa! Neu uretan sartu ta deadař batean ařito[illegible] nitzaioten: "Atozte ba, enetxuok, emen bai ederki! Sartu zaitezte beñepen, [illegible] gustatzen ez ba'zazute ertengo dezute!" Baña, bai zotza! Ezta ur ertzera [illegible] ratu ere! Ara, nik, zure lekuan ba'nengo bertan bera laga ařautza temati [illegible] bai? ta beste umeak artu ta uretara juango nintzake.

—Egun askotan egon naiz bere gañean eta maitetasuna artu diot—[illegible] tzun zion amak, beste egun batzuetan ere egon egin beař det.

—Denbora alpeř-alpeřik galtzea besterik ez dezu egingo ba—esan zion [illegible] tzař zařak.

(1) Atea nere eřian, Bizkayan paťa deitzen dioten egaztiari esaten d[illegible]

# Errijetatik

**GALDAKANO**

BATZAŘA.—Gauř larunbata gabeko zortzi ta erdijetan ixango da Galdakano'ko alderdikidijen batzař orokořa. Batzař au uřen autetsi biař diran eři-ziñegotziak ixentautzeko dan esketiño gařantzi andiko batzařa da. Erdu bediz batzař ořetara alderdikide gustijak.

EUZKEL-IXENAK.—Igaro zan igandian ugutzau eban geure eřtxadonan Miren Aintzane euzkel-ixen bikañakin Gomuzio auzuneko Mota'tař Bitor eta Altuna'tař Kelestiñe senař - emazte abeřtzalien alabatxuba.

Ařabitxi, amabitxijak Altuna'tař Jon eta Uriařte'tař Elixabete abeřtzaliak ixan ziran. Geure zorijonik biozkořenak gustijo!.

ENDORE BAŘIJA.—Igaro zan [illegible] runbatan egin zan alderdikidien batz[illegible] an Abasolo eta Garai'tař Julen al[illegible] dikidia autetsi zan eřiko endoretz[illegible] ko. Julen alderdikidia, abeřtzale [illegible] tzua dan aldez ta berak eřijan da[illegible] zan ezaupidiak dirala-ta, eřaz en[illegible] jařiko dogula-ta gagoz, geure gura[illegible] dan lez.

IZPAŘ BALTZA.—Uřen igaro [illegible] astian il zan Gomuzio'ko auzunian [illegible] gero'tař Andone andera abeřtzalia. [illegible] edo lau semetxu ta senař itxi dauz [illegible] gun gayakez atsekabian bere e[illegible] kuak.

IZPAŘ BAT.—Biař-ixena, be, ba-[illegible] eta zorijoneko gagoz Gomuzio'ko a[illegible] zunekuak, eskeřak jeltzaliai, laster [illegible] kiko dogu, ba, biařeko zan uřutirik [illegible] Eta bai ainbat tximista-argi, be, t[illegible] dian. Piska bat apainduta ikusiko do[illegible] auzune au.

Euzko - abeřtzaliak auzune bati e[illegible] eřijari zerbait agindu edo opaldu[illegible] dautsenian agindua betetzeko ira[illegible] dira, ez arerijuak legez; agindua [illegible] eta emona bi, aginduaz konporme a[illegible] Gomuziotařak eta galdakanotařak [illegible] -dakixube autařkija nori emon.

Basakita

**MENDARO**

EZKONTZA.—Igaro zan larunba[illegible] -ařatsaldeko lauretan gure txade[illegible] erkondu ziran Bueno'tař Eřikarta [illegible] nostia'ko osagile jauna eta Zuloaga[illegible] Miren Koldobike uri onetako and[illegible] ñoa. Zorionak eta zuen eztizko ilar[illegible] urte askotarakoa bedi.

NASKALDIA.—Sevilla'n egun batz[illegible] igaro-ondoren gure ařtian arkitzen [illegible] rade gure lagun diran Iriondo'tař P[illegible] tzeska eta Andoni euren emaztaki[illegible] Bařenetxea'tař Gergore eta K. O[illegible] etořiak.

JAYOTZA.—Ageře Aunsti - basehi[illegible] sendia geitua ixan dute au aurtxo b[illegible] tekin. Zorionak gurasoai.

AUTESKUNDEAK.—Beřiz ere g[illegible] ñian ditugu auteskundiak edo b[illegible] emateko egunak. Pasku-egunian b[illegible] ere jokatu biařean gera. Oraingo[illegible] udaletxietako ziñegotzi edo kontzej[illegible] lak atera biař ditugu. Ernai bada g[illegible] tiak eta atera daiguzan eřia ondo z[illegible] duko dutenak.

BATZAŘA.—Abeřkidez dana beta [illegible] gola gure Batzokian, astařtian gabe[illegible] zortziretan izan gendun batzařa. Ba[illegible] tzokitik uri onetako ziñegotziak au[illegible] genduzan: Ařieta'tař Martin, euzko-[illegible] kazaria eta txaidetik Garitaonandia'ta[illegible] Polentzi. Beste batzař bat larunba[illegible] -iluntzean izango degu. Otoi dagie[illegible] abeřkide guziai etoři daitezan zintz[illegible] -zintzo.

Uřen-ařte.

Kaiku

**OŘATI**

Gauř, jořaiaren 4'gn. gabeko bedera[illegible] tzijetan, ixango da eři onetako alder[illegible] dikidien batzař nagusia. Batzař-gai[illegible] da datořen ziñegotzi - auteskundietako [illegible] ziñegotzi-gaiak aukeratzeko. Danak d[illegible] kizute ardura aundiko gauza dala eta [illegible] ořegaitik ez iñok utzik egin, bat ba[illegible] kařik ez dedila etoři-gabe gelditu. Al[illegible] derdikide diran danak daukate itza [illegible] autařkia.

Uri-Buru-Batzařa